

# noaua

**Xabier Arregi:**  
“Zorte onekoa izan  
naiz halako herri  
batean aritzeagatik”

**Ekainaren 18an, Irrien  
Lagunak frontoian**

**Eskola txikien jaia,  
iruditan**

**San Joan jaietako suak piztuko du uda**

**ERREFUSAREN BILKETAREN  
EGUTEGI ZUZENA 2019**  
(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

**EKAINAK >>>> 2, 16, 30**  
**UZTAILAK >>>> 14, 28**  
**ABUZTUAK >>>> 11, 25**  
**IRAILAK >>>>> 8, 22**  
**URRIAK >>>>> 6, 20**  
**AZAROAK >>>>> 3, 17**  
**ABENDUAK >>>> 1, 15, 29**



**TALDE BIDAIA**  
**Irteera 2019ko irailean**

**Lasarte-Oriatik, NOAOAk gidatua**



**943 37 36 13**

[info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus)

[noaoa.eus](http://noaoa.eus)

## 31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

**943 30 29 20**

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**sukia**

Zure etxean zaude

## Albiste irudituan

# Ikasturte honetan kontsumo jasangarria hizpide izan dute Udarregi ikastolan

**E**skola Agenda21 proiektuaren parte da Udarregi ikastola. Eta ikastolarekin batera, Lehen Hezkuntzako ikasleak, irakasleak, gurasoak eta ikastolako gainerako langileak. “Aurtengoan, kontsumo jasangarriaren gaia aztertzen ibili gara”, aditzera eman digutenez. “Gai sakona, usurbildarren eguneroko bizitzarekin harreman zuzena duena, eta nahiz eta gauzak nola egin behar diren jakin, oraindik asko egiteko dagoela ikusi dugu”.

### Sentsibilizazioa

Kontsumo jasangarrian sakontzeko, txoko berde bat atondu zuten. “Bertan, oka jolas moduko baten bitartez, kontsumo jasangarriari lotutako hainbat kontzeptu eza-gutzeko aukera izan genuen”.

Ikasturtean zehar, ikastolako nahiz herriko diagnostikoa osatu dute. Honen guztiaren berri emateko, udaletxean izan ziren ekainaren 4an.



Ekainaren 4an udaletxean izan ziren Udarregi ikastolako ordezkari batzuk, aurten landutako gaiaren berri emateko: kontsumo jasangarria. Argazkia: Artelatx.

## Laburrean

### 1955ean jaiotakoen kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute bere eguna 1955ean jaiotakoek. “Egun pasa egin-gu dugu, Gezaltza-Añanako gatz arana, Nerbioiko ur jauzia eta Urduña ikustatu-z. Jakinaren gainean izateko. Izena irailean eman beharko da”.

### 1979an jaiotakoen kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa bazara eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

### ‘La chica danesa’ filmaren proiektzioa frontoian

Ekainak 13 osteguna, pintxo-pote feministaren bigarren edizioa ospatuko dute. 21:00etatik aurrera *La Chica Danesa* (2015) filma eskainiko dute frontoian. Historiako lehen sexu-aldaketa kasua du oinarri filmak.

# noaúa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eus ||| www.noaúa.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatoratzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaúa.eus


**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
ISSN: 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaúa.eus



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Luis Aranalde

## Feminismoa eta erlijioa

**G**aur, ekainaren 4a, bukatzen dute ramadana musulmanek. Ramadanak esan nahi du eskuzabaltasuna. Hilabete horretan, beraz, musulmanek enpatia eta bihotz beratasun handiagoa adierazi behar diote hurkoari. Barau kontuak baino garrantzitsuagoa da Koranarentzat maitasunezko jarrerak lantzea aldi sakratu horretan.

Sinesdun hauen artean bada emakume bat oso ezaguna bihurtu dena azken egun hauetan: Kahina Bahloul. Bere ametsa, bere proiektua: Frantzia lehen emakumezko imana izatea. Erlijio guztietan bezala, islamisten artean ere badaude Jainkoaren eta fededunen artean bitartekaritza egiten dutenak: imanak; guruak hinduismoan, lamak budismoan, apaizak kristautasunean, errabinoak judaismoan besteak beste bitartekoak dira. Imanak ez dira ordenatuak izaten kristautasunean bezala; beren bitartekotasun zilegitasuna sinestodunen elkarteak ematen die.

Islamologoa da Kahina. Frantzia jaio zen duela 39 urte. Frantzia da European musulman gehien dagoen

nazioa: sei bat milioi. Bere erronka ez da txantxetakoak: meskita bat ireki nahi du; baina ez egun daudenak bezalakoa: gizonetzakoak eta emakumezkoak elkarrekin otoitz egingo duten zentroa baizik. Batzuek esan diote dagoeneko: “jantzi ezazu beloa erlijioaz hitz egin aurretik”. Ez omen die kasurik egiten. Bere ustez beloa eramatea ez dago aginduta Koranean; berak agintzen duen bakarra da emakumearen jantziak dezentea edo eratsua izan behar duela. Eskema guztiak hautsi ditu emakume musulman bezala: beloa ez janzteaz aparte, erritoak, otoitza, baraua eta abarrak, ez omen dira funtsezkoak erlijio batean. Meskitara ere ez da joaten. Ez du gehiago entzun nahi imanen hitzaldi matxista eta arkaikorik. Garrantzitsuena ez da tradizioak txintxo betetzea, espiritualtasuna baizik. Horregatik, bere otoitz gunea sortu nahi du eta Mahomaren alaba kuttuna Fatimaren izena jarri dio. Bertan egiten den otoitza emakumezkoek eta gizonetzkoek zuzenduko dute.

Kahinak aitzindariak izan ditu borroka horretan: Ipar Ameriketako Amina Waduek eta Sherin Kandan daniarrak,

beren meskitak zabaldu dituzte ausardia latza agertuz. Teologiaren ikuspegitik ez dago inongo arrazoirik emakumeari debekatzeko imana izatea. Orduan, zer dela eta ez da izan historian zehar emakumezko imanik? Arrazoi sinplea: gizarte patriarkal batean bizi direlako emakumezko musulmanak.

Erlijio arloko sexismo hau ez da islamiarren monopolioa. Beste erlijioetan ere ikusi duela dio diskriminazio bera: judaismoan, kristautasunean... “Emakumeak bigarren mailako lanak burutzen ditu, gizonetzkoen laguntzaile huts da”, dio.

Sinesdun askok utzi du islama. Izan ere, Kahinaren ustez, gizarteak sekulako aurrera pausoak eman ditu kultur aldetik eta erlijio oso atzera gelditu da, Erdi Aroan; “pentsamenduaren esklerosia dago islamismoan”.

Gazte islamiarren arteko biolentziak ere badu bere espikazioa. Kahinaren ustez erlijio gaurkotua eta dinamikoa espero du gaurko gaztediak. Berritzen ez doan erlijioa, hilda dago. Gazteei erakusten ez badiegu balore unibertsaletan oinarritzen den erlijioa, fundamentalismo klase guztientzat

pagotxa bihurtzen da. Zenbat eta ezjakinagoak gure gazteak, orduan eta erradikalagoak bihurtzeko arriskua. Hau da indarkeria itsuaren arrazoietako bat. Berak alternatiba bat eskaini nahi die gazteei interneten eta sare sozialen bidez. Charli Hebdo-ren aurkako atentatuaren ondoren orrialde bat ireki zuen: “Parle-moi d’islam” (hitz egin iezaazu islamaz), eta bertan bideo pedagogikoak zintzilikatzen ditu gazteak hezi ahal izateko.

Jende askok animatzen du jarrai dezan lan dotore horrekin. Baina mehatxuak ere izan ditu. “Neurri batzuk hartu ditut, baina ez dut beldurrik. Beldurraekin ezin da aurrera egin”, dio. Zoritzarrez eliza katolikoa besoz besoz ibil daiteke islamismoarekin gai honetan: apaizgintza zerbitzua baldin bada imana izatea bezala, nola ez dira apaiz emakumezkoak? Norbaitek zerbitzatzeko badaki hori emakumea da. Teologia inuzente baten esanetan Jainkoaren eta gizonen arteko bitartekotasun zerbitzua sakratua omen da eta nonbait eginkizun santuak gizonetzkoari bakarrik dagozkie.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## Milesker

**L**ehengo urtean, Oikian, aurtengo eskola txikien jaia antolatzekeo lekukoa jaso genuenetik, kirioak dantzatzan izan ditugu, horrek zekarren ardura eta lanarekin. Gai izango ote ginen Agiñan horrelako zerbitu antolatzekeo?

Erantzuna igandean irudi-

katu zen. Sekulako lana izan arren, agiñarrek ez dute horrelakoetan hutsik egiten. Oilo ipurdia ateratzeko moduko auzolana izan genuen ikusgai.

Bertako eta kanpotik etorritako bolondresen ikaragarritzeko lanari esker, inoiz ahaztuko ez dugun eguna bizitu

genuen.

Hau ikusita, Agiñako eskola txikiko haur, irakasle eta guraoen partetik MILA ESKER bolondres, laguntzaile, babesle eta parte hartu zenuten guzti! Gora eskola txikiak!

**San Praixku Guraso Elkartea**

### Akats zuzenketa

Maiatzaren 31ko aldizkarian Ibai Marin musikariari NOAUA!k eginiko elkarrizketako irudiaren egilea ez genuen zehaztu. Karkara, Orioko herri aldizkariarena da argazkia.



Xabier Arregi Iparragirre

**2**015eko ekaina. Kargua hartzarekin batera, hasi berriaren ziurtasun eza, ardura eta erantzukizuna sentitzen nituen zuen (usurbildar guztion) aurrean. Ondo aritu nahi, baina neure burua alkatetzan probatu gabea izanda, ezin jakin nola erantzungo nuen.

Lau urte igaro dira harrezkero. Lau urteko epealdia motza da, edo luzea, nondik begiratzen den. Edonola ere, lau urtean ezin konta ahala gertakari, ezuste eta arazo kabitzen dira. Ekarpeneak, eskaerak, proposamenek eta kritikek laneko espazioa inbaditzen dute, baina espazio berean bizi dira ilusioa, estutasuna, poza eta atsekabea. Tramiteak eta gestioak huts dira emoziorik gabe. Administrazioa eta bizi-esperientzia emozionala, hain kontrajarri diruditen arren, txanpon beraren bi alde izan daitezke.

Horregatik beharbada, atzera begira jarrita, flash emozionalak datozkit: laguntza eskatu zidanaren begiratua, elkarrizketa xalo eta bete hura, egin didaten errieta, mahaitik altxa eta haserre joan zaidan laguna, kalean geldiarazi eta estimua adierazi didan pertsona. Lau urtean, aspaldi ez bezala ikusi ditut malkoak masailetan: batzuk pozez, beste batzuk tristuraz edo amorruz.

## Hitz batzuk, lau urteren ondoren



“Usurbildarrok: zorte oneko izan naiz halako herri batean aritzeagatik. Herri honek erruz eman dit”.

### XABIER ARREGI

**“Usurbilgo udalerrria ez da etxe batean gobernatzen. Plaza da herri honen bizigunea. Plazan gara, kalean, gure ekimenetan. Udalerrriaren baitako herrietan bizi gara. Euts diezaiozun izaera aberats horri”**

Kudeaketaz, proiektuez eta gobernantzaz hitz egin behar luke fundamentuzko alkate batek. Hala dirudi. Baina, udaleko jardunari begira, giza dimentsioa da lehenik datorkidana, pertsonak udalean lanean, pertsonak udalarekin hartu-emanen, beren on-txar guztiekin. Halaxe gertatzen ari zait orain ere: zuengana zuzendu, eta bizipenak datoz-

kit, balantze formalak baino gehiago.

Aitortzen dizuet: ondotox dakit ez dudala beti asmatu. Dakidan bezala dena ez dagoela udalaren esku.

Izan ditut estutasunak, ez dut ukatuko. Geratu zaizkit arantzak, eta horien artean badut bat bereziki mingarria. Artzabaletatik gora, lehen Arkaitz erreka zeharkatzen zuen Letabideko paraje eder horretan, zutik dago orain errauste-planta. Haserre naiz oso, Gipuzkoako agintariekin ez gaituztelako aintzat hartu, ezta entzun ere. Haserre naiz baita ere, alderdikieriaz harago, batuta erantzutea eskatzen zuelako mamu beltz horrek. “Herri-erantzun bateratua”, horixe eskatu nuen udalean kargua hartu nuen egun berrean. Alferrik, oraingoz.

Esker oneko hitzak ditut.

Etxekook: anparoa, eten-gabeko babesia izan dut zuengan, uneoro.

Taldekideok: pertsona zintzo, gaitu eta konprometuekin aritu naiz, langile fin eta saiatuekin. Talde izan gara, lagunarte. Eta hori handia da, handia denez.

Udal langileok: presente duzue herritarren zerbitzura aritzeak baduela aparteko balioa eta erantzukizuna. Hori duzue oinarri, eta narbarmenezkoa da.

Agurtzane eta hautetsi berriok: eskertu nahi dizuet aurkeztu izana. Ondo asko dakit gaitasuna, ilusioa eta konpromisoa sobran dituzuela. Zorte ona, horixe da opa dizuedana, hori ere behar izaten da eta.

Usurbildarrok: zorte oneko izan naiz halako herri batean aritzeagatik. Herri honek erruz eman dit. Usurbilgo udalerrria ez da etxe batean gobernatzen. Plaza da herri honen bizigunea. Plazan gara, kalean, gure ekimenetan. Udalerrriaren baitako herrietan bizi gara. Euts diezaiozun izaera aberats horri.

Azkeneko hitzak ditu Xabier alkateak. Baina ez dago adiorik hitz hauetan, lehen bezalaxe sentitzen bainaiz orain ere herri-proiektu honen parte.

Jaso nire besarkada eta esker ona, bihotz-bihotzez.

EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

**943 36 91 39**

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)

**Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!**

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

# Usurbilgo jaietako Bertsopaper Lehiaketa

**B**ota Punttubak eta Usurbilgo Udalak antolatutako 43. edizioan parte hartzeko epeak zabalik segiko du ekainaren 21era arte. 16 urtetik gorako usurbildarrei zuzendua dago txapelketa.

## Postaz bidali lanak

Lana (originala eta hiru kopia) egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe aurkeztu, kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak. Guztia helbide honetan: Usurbilgo Udala (XLII. Bertsopaper Lehiaketa) Joxe Martin Sagardia plaza Usurbil 20170.

## 6-10 bertso artean

Bertsopaperek 6-10 bertso artekoak izan beharko dute, inoiz argitaratu gabeak.

## Sariak:

- Lehen saria 200 euro, oroi-garria.
- Bigarrena, 150 euro.



16 urtetik gorako usurbildarrei zuzendua dago txapelketa.

## Jaietako bazkaritarako txartelen salmenta

**Ekainak 28, gazte bazkaria**  
Txosnetan egingo da. Txartelak aurrez salgai, ohiko tokietan.

## Ekainak 29, zikiro jana

Txartelak Aitzagan, Txiribogan eta Bordatxon eskuratu ahalko dituzue 25 eurotan, 15 eurotan langabetu eta ikasleek. Txartelak ezingo dira itzuli ekainaren 28tik aurrera. Hilaren 29an ospatuko da zikiro-jana, larunbatez, 14:00etan Askatasuna plazan.

## Ekainak 30, jubilatuen bazkaria

Ekainaren 30ean Atxega Jaurerian 14:00etan ospatuko den bazkarirako txartelak aurrez eskuratu beharko dira. Ekainaren 19an goizeko 10:00etan jarriko dituzte salgai Gizarte Zerbitzuetan eta hiru jubilatuek elkarrean egoitzetan (Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate). Txartelak ekainaren 21era arte izango dituzte salgai, lehenago agortzen ez bada.

# Zumartekoen ikasturte amaierako kontzertuak

Ikasturte amaiera musikatuko digute Zumartekoek. Urtero moduan, ekainaren 17tik 21era antolatu duten kontzertu astearekin joango dira oporretara:

## Ekainak 17, astelehena

■ 19:00 Abesbatzen kontzertua Sutegiko auditorioan.

## Ekainak 18, astearte

■ 19:00 Bakarleri, bikote, hirukote eta talde txikien emanaldia Sutegiko auditorioan.

## Ekainak 19, asteazkena

■ 19:00 Triki-pandero taldeen emanaldia Artzabalgo plazan.



Ekainaren 21ean Anakruxa eta The Hastelen's (argazkian) arituko dira Artzabalben.

## Ekainak 20, osteguna

■ 18:00 Musika Txokoko ikasleen emanaldia Udarregi Ikastolako areto nagusian.

■ 19:00 Konboak eta gitarra taldeen kontzertua Artzabalgo plazan.

## Ekainak 21, ostirala

■ 19:00 Konbo eta gitarra taldeen kontzertua Artzabalgo plazan: Anakruxa, The Hastelen's.

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

## Zirimaran ixtear da izen ematea

Ekainaren 14an itxiko da, 2019-2020 ikasturterako Zirimara aisialdi taldearen urritik maiatzerako eskaintzan izen emateko epea. LH 1-6 arteko ikasleek matrikulatu ahalko dute.

## Euskaraldiko bilera eragileekin

2020ko edizioako prestaketa lanak abiatu dira Usurbilen. Ekainaren 19an urrats berri bat emango dute. Eragileekin bilera irekia deitu dute 19:00etan Potxoenean. Parte hartzera animatzen dute. Bigarren edizio honetan Euskal Herriko herritarrekin batera entitateek parte hartzeko aukera izango dute.

## Jakin Jardunaldietan itxaron zerrenda zabaldu dute

“Maitasuna politikoa da” izenburupeko Jakin Jardunaldietarako taldea bete egin da. “Itxaron zerrenda sortu dugu, parte hartzeko interesa baduzu, eman izena baina ez egin ordainketarik”.

■ Egunak: uztailak 11-12, Artzabalben.

■ Informazio gehiago: ueu.eus

■ Antolatzaileak: UEU, Jakin eta Usurbilgo Udala.

## Orain Presoak bizikleta itzulia

Indarrean den espetze politika eta salbuespen neurriak bertan behera uztea eskatzeko Orain Presoak aldarriaren bueltan bizikleta martxa antolatu du Sarek uztailaren 19tik 21era, Luhusotik Gernikara. Hiru etapetako lehena Usurbildik igaroko da uztailaren 19an, ostiral arratsaldean. Izen emateko eta informazio gehiagorako: sare.eus

# Dantzan eta kantuan jarriko gaituen maskarada eguna iritsi da

Xiberotar kulturak Usurbilgo kaleak bereganatuko ditu igande honetan ospatuko dugun Maskarada Egunaekin. Adi, Urdiñarbeko lagunekin izango ditugu hitzordu hauei. Kantu Taldea ere parte hartzeko da. Bezperan, Urdiñarben eta Maulen izango dira Euskal Herria Kantuz Egunean. Larunbatean 8:30ean Oiardo Kiroldigitik irtengo den autobus zerbitzua antolatu dute. Maskaradari buruz gehiago jakiteko, bisitatu Artzabalgo Iñaki Agirresaroberen argazki erakusketa.



Igande honetan, eguerdiko 11:30ean abiatuko dira Potxoenetik udalera. Arratsaldera arte luzatuko da maskarada.

## “Normalizatu behar ditugu halako elgarretaratzeak”

Xiberoako maskaraden taldetik igandeko jaialdian parte hartze- ra gonbidatu gaituzte. “Zatozte gurekin, elkar ezagutzeko eta jaialdi polit baten bizitzeko!”. NOAUA!ri adierazi diotenez, halako topaketak sustatu behar dira. “Xuberoako eta hegoaldearen arteko loturak ez dira gehientzako ezagun, baina halako elgarretaratzeak normalizatu behar ditugu eta usuago egin, hortarik azkartuko da gure partaidegora!”.

Xiberoatik aurreratu digutenez, “maskarada motibatua

### EKAINAK 16 IGANDEA

**Xiberoatik aurreratu digutenez, “maskarada motibatua da Usurbilerat etortzeko”. 20 bat gazte etorriko dira gure artera asteburu pasa**

da Usurbilerat etortzeko”. 20 bat gazte etorriko dira gure artera asteburu pasa, maskarada “mesperatik zuekin haremanak barnatzeko”. Urtarrietik apirilera luzatu ohi duten maskaraden

denboraldia amaitu dute. Baita eta pozik. “Aurtengo giroa oso ona izan da, lau hilabete, 50 herritar 16 aste buruz elgarrekin herriz herri”, euskaraz eta haien kultura ezagutarazten. Horretan segi nahi dute, “hizkuntza gazteen ahotan izanen deno, maskarada badate”.

### Ekainak 16, igandea

■ 11:30 Potxoenetik udalera dantzariekin abiatu.

■ 11:45 Harrera Udalaren aurrean.

■ 12:00 Auresku herrikoia

(nahi duenak dantza egin dezake).

■ 12:30 Gazteen harrera Askatasuna plazan.

■ 13:00 Artzabal zahar etxean harrera.

■ 13:30 Mikel Laboa plazan azken barrikada.

Ibilbide osoan Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoek eta herriko txorrotzek ere bertsoak abestuko dituzte.

■ 14:30 Bazkaria Udarregi Ikastolako jangelan.

■ 16:30 Ekitaldi nagusia pilotalekuan.

## Larunbat honetan osatuko da udalbatza berria

Batzorde informatzaileen, tokiko gobernu batzarren eta udalbatzaren aktak onartzeko asteazken honetan udal ordezkariak egitekoak ziren 2015-19 legealdiko azken saioen ostean, larunbatean ospatuko da (ekainak 15) udalbatza

berria eratzekeo ekitaldia. Eguerdiko 12:00etan izango da, Usurbilgo Udaleko pleno aretoan. Ekitaldi horretan hartuko dute kargua maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan herritarren bozkei esker hautatuak izan diren udal ordezkariak;

alkateak eta 12 zinegotziek. 8 EHBildukoak izango dira: Agurtzane Solaberrieta Mesa (alkate berria), Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oxkar San-

tamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue. Lau EAJ-PNV-koak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Frisoli eta Andoni Atxega San Sebastian. PSE-k ordezkari bakarra izango du, Patxi Suarez Perez.

# Baserrira eramango gaitu Ikastola Eguneko HH-koen ikuskizunak

**A** bere festa! izena du Udarregeriko Haur Hezkuntzakoek, larunbatean ospatuko den Ikastola Egunez eskainiko duten ikuskizunak.

“Urte sasoi ederreko goiz batean, oilarraren kukurrukuak oilategi osoa esnatu eta oilarrak, oiloak eta txitak zelaira atera dira. Baserritarrak ukuiluko atea ireki eta han datoz behiak eta zezenak beren familiekin zelai berera, txekorak, idiak, txalak... hauek ere, eguna elkarrekin pasatzera. Baserriko beste atea irekitzen da eta... nortzuk datoz oraingoan?”, hortik aurrerakoek berri, ekainaren 15ean 12:00etan Kiroldegian.

Emanaldira joan nahi duzuenontzako bi ohar. 11:40ean irekiko dira futbol zelaiaren aldeko ateak, ikuskizun gunera sartzeko. Sarrera-txartelak bertan emango dira. Sarrera librea izango da aforoa bete arte.



Udarregi Ikastolaren eguna larunbat honetan ospatuko da.

## Ekainak 14, ostirala

17:00 “Hondartzaren amaiera” antzezlan Olanoeneko anfiteatroan.  
Ondoren, txokolate jana Askatasuna plazan.

## Ekainak 15, larunbata:

### Udarregi Ikastolaren Eguna

08:30 Esnadeia herrian zehar, herriko txistularien eskutik.  
09:00-12:00 Ikastola eta Oiardo Kiroldegi inguruan jolasak ikasleentzat.  
12:00-12:50 HH-koen “Aber

Festa” ikuskizuna Kiroldegian.  
14:00-19:00 Hurbilago Elkar-teak sukaldaturiko herri bazkaria frontoian. Txartelen salmenta epea hilaren 10ean itxi zuten. Bazkalostean:  
15:30-16:00 LH5. maila. Musika saioa frontoian.  
16:00-17:00 Julen magoa Sutegi atarian.  
17:00-19:00 Alaken taldea, Muxikoak eta gehiago frontoian.  
Antolatzaileak: Udarregeri Ikastola eta Hitz Aho Guraso Elkarteak.

## Ekainaren 13an osteguna, Udajolaseko guraso bilera

Udajolasen izena eman dutenek hitzordua dute ostegun honetan. 17:00etatik aurrera, Sutegin. Uztailaren 3tik 30era antolaturiko udaleku irekien gaineko argibideak emango zaizkie gurasoei. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarteak.

## Ekainaren 17an, greba Osakidetzako lehen arreta zerbitzuan

Osakidetzako Lehen Arreta zerbitzuko sindikatuek greba deitu dute ekainaren 17rako. Herritarrei kalitatezko zerbitzua ematea eskatzeko, eta “Osakidetzak bizi duen egoera larria” dela eta, premiatzeko neurriak berehala hartzea eskatuko diete Osakidetzari.

## “Xua Gurasoekin Etxera” kamiseten salmenta

Dagoeneko baldintzapean aske behar zuten arren, Valentziako Picassenteko espetxean 10 urte beteko dituzte hilabete honetan Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak. Haien haur Xua ere haiekin bizi da. Urtarrilean ordea 3 urte beteko ditu eta espetxetik irten beharko du.

### Kamiseten salmenta mahaia, Sutegi atarian

Xua gurasoengandik banatu ez dezaten lan egingo duen “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimena aurkeztuko dute astebate barru. Ekimen honen aldeko kamisetak salgai jarriko dituzte larunbateko Ikastola Egunean.

### Ekainak 15, larunbata

■ Ikastola Egunez, “Xua Gurasoekin Etxera” kamiseten salmenta mahaia Sutegi atarian.

### Ekainak 22, larunbata

■ 12:00 Xua Gurasoekin Etxera ekimenaren aurkezpena, aldatarik ez bada, Askatasuna plazako parkean.

### Ekainak 29, larunbata

■ 12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantu-jira Kuxkuxtu txarangarekin batera.

■ 14:00 Zikiro jana Askatasuna plazan.

■ 20:00 Euskal presoek eskubideen aldeko ekitaldia Olanoeneko plazan.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA  
**PELLO**

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA  
TELEFONO BERRIA!

EGIN ZURE ESKAERAK  
WHASTAPP-ETIK!





# Jaiak, kalezartarren bilgune

**T**xikien egun handia izaten dute Kalezarko San Joane. Oso osorik haiena, familia giroko eguna izaten da, goizetik iluntzera. Aurtengoan, larunbatez (ekainak 22) ospatuko dituzte jolasak, tailerrak, txokolate gozoa edota krosa. Lehen ez zuen protagonismoa izan du Haurren Egunak azken hamarkada pasatxoan, Kalezarko jaietan. Ez da kasualitatez gertatu, bere historia propioa du.



Haurren Egunak arrakasta du eta ez da kasualitatez gertatu. Bere historia propioa du.

Inguruotako beste hainbat bilguneri gertatu izan zaion moduan, lekuko aldaketaren beharrean zen Kalezarreko Jai Batzordea 2000. hamarkada hasieran. Ordura arte urteetan lan egiten jardundako taldeko kideak errelebo eske zeuden, gazte nahikorik ez eta hala sartu zen guraso talde bat 2002an. “10 bat guraso elkartu ginen eta aurrera jotzea erabaki genuen”, oroitarazi dio-

## GURASO TALDEA

**“Garai bateko umeak, jaiak antolatzen ari diren gaur egungo gazteak dira. Transmisio hori egon da, hori zen gure helburua”**

te NOAUA!ri talde hartako bi gurasok, Garbiñe Sarasuak eta Pablo de Miguelek.

Erlojuz kontra aritu ziren lehen urtean, denbora faltan eta berria zitzaien antolaketa lan bati aurre egin beharrean aurkitu ziren. 2002ko San Joanetan, “goizean jolas batzuk, arratsaldean txotxongiloak eta txokolate jana antolatu genituen. 20 bat haur etorriko ziren”, gogoratzen dute. Egun Umeen Egunak duen parte hartzearekin zer ikusirik ez. Orditik, “zenbait urteetan 200

ume biltzera ere heldu gara”. Eta haientzat guztientzat 80 litro txokolate sukaldatzera ere bai.

Hurrengo edizioetan egitaraua indartzen joan ziren; umeen krosa antolatu zuten, arrakasta itzela izan zuen lehen ediziotik. Aurten hamazazpigarren aldiz ospatuko da. Garai hartako haien sortze lana da, krosaren aitzakian, lizar hostoa eta San Joan gaueko sugarraren irudidun kamiseta berdea. Doan banatzen zituzten parte hartzaileen artean. Txapelak eta poltsak atera zituzten baita.

Bistan denez, Haurren Egunak entitate propioa izan du azken hamarkada pasatxoan Kalezarko San Joanen egitarauan. Urte batzuetan festak bi asteburuetan ospatu izan zirenean, “asteburu bakoitzean umeen egun bat antolatzen genuen. Bietan jai gunea betetzen genuen”.

## Denok, denontzat

Eginiko ahaleginak bazituen atzean bere helburuak. Haurrak soilik ez, bere senideak ekimenotan inplikatzera, bai parte hartzaile nahiz antolatzaille gisa, “festak denonak dira eta”. Guraso gisa, familia giroko ukitua eman nahi izan zieten jaiei, denonak eta denon elkargune direla sentiarazi. “Umeak festa dotoreak, ondo eginak, giro onekoak nahi badira, antolaketa parte hartu behar da. Eta hori argi izanez gero, festak aurrera doaz”. Beti “elkar lagunduz aurrera atera dira”.

Eta bigarren helburua, hartuemanak sendotzea, jaiak kalezartarren elkargune izatea. “Kalezar auzo oso sakanatua izan da, goialdean

etxeak, behean baita, baina ez zegoen elkartzeko gunerik”, adierazi diote NOAUA!ri elkarrizketatuek.

Horixe nahi zuten, elkargune bat sortzea festen antolakuntzaren aitzakian, eta une aproposan heldu zen Jai Batzordean sartzeko gonbita. “Adin beretsuko guraso ugari bildu ginen, Kalezarrera bizitzera etorri berriak batzuk. Guztiok elkar ezagutzeko eta harremantzeko balio izan zuen. Orditik harremana mantendu dugu”. Kalezarren kohesiorako zer esanik ez, zer ekarpena egin duten San Joane.

“Eguberrietan gaztainak erretzen genituen eta eguberri ostean hasten ginen entse-

guekin” eta festen antolaketa lanekin. Bai, Haurren Eguna aipatu dugu, baina festetako beste ekintzen antolakuntzan buru-belarri lanean jardun baitzuten gurasook. Soka-dantzan, gazteekin lehian herri kiroletan, futbolearen Haranen, edo oilasko biltzaile txikien irteeran esaterako. “Neskek bai baina mutilok ez genekizkien soka-dantza ekitaldiko dantzak. Auzoko emakume bat, nahiko prestua dantzen munduan, alpargata dantza erakutsi zigun, fandangoarekin hasi ginen, arin arinera ez ginen heldu lehen urtean. Urtarrilean hasi entseatzen eta San Joan egunez atera ginen plazara, batzuk dantza guztiak ikusi gabe, bai-

na ausart atera ginen”.

Festak lanean, baina ilusioz eta jai giroan bizi zituzten. “Egun hauetan ez egingen etxean sartzen. Bazkaldu, afaldu... dena kalean”.

Azken urteotan haien hurrengo belaunaldiak hartu du lekukoa. “Garai hartako umeak jaiak antolatzen ari diren gaur egungo gazteak dira. Transmisio hori egon da, hori zen gure helburua. Gazte talde indartsua dago, gurasoen taldean ere belaunaldi aldaketa eman da”. San Joane osasuntsu direla ikusita, eta urteetan eginiko lanaren emaitzak hor, bizirik dirauela ikusita, ezin zitekeen bestela izan, “harro gaude egindako lanarekiko”.

# Kalezartar helduenei gorazarre dantzan

**K**alezarko jaien egun handirako, tradizio luzeko ekitaldi bat berreskuratu dute aurtengo egitarauan. Soka-dantza, eta soka-dantzarekin kalezartar helduenak omentzeko aspaldiko ohitura ekarri digute gogora urte luzez antolatzaile izandakoek.

“Bi auzotar helduenak, emakumezkoa eta gizonenezkoa, omendu izan dira. Aurrez omenduak izango zirela jakinarazi ostean, bere bikoteekin atera izan dira plazara. Txapela, zapia eta lore sorta jaso ohi dute”, adierazi izan digute urte luzez ekitaldi hau antolatzeaz arduratu zirenek.

Urteetako etenaldiaren os-



2004an berreskuratu zuten soka-dantzaren ohitura Kalezarren.

## EKAINAREN 24AN

**Soka-dantza emanaldian kalezartar helduenak omentzen dituzte**

tean, 2004an berreskuratu zuten ohitura. Hirugarren

edizioan hasi ziren auzotar helduenak omentzen.

### Esker onez

Lehenengoan, “Iñaki Urkia kalezartarra omendu genuen, mutil guztioi soka-dantzarako dantzak irakasten aritu baitzen, eta esker ona adierazte-

ko. Bigarrean duela 40 bat urte dantzatzen aritu zirenak omendu genituen”, oroitarazi diote NOAUA!ri. Gogoan dute nola joan ziren gero afaltzera. “Usurbila gutxitan etortzen zen jendea zegoen tartean, ikaragarri eskertuak”. Ge-roztik kalezartar helduenak omendu izan dituzte.

**Ekainaren 24an, arratsaldeko 18:30ean**

Gogotik saiatu izan dira dantzaren bidez urte luzez, kalezartarra izatea omenaldirako arrazoi dela aldarrikatu eta komunitateko kide helduenei gorazarre egiten. Aurtengoan berreskuratu duten soka-dantza, ekainaren 24an astelehenarekin, 18:30ean Kalezarko plazan.



**LARRAÑAGA  
PLASTIKOAK E.A.**

**INDUSTRIARAKO  
PIEZA MOLDAKUNTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL  
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05  
Fax: 943 37 70 01  
admon@larranagaplasticos.com

**Barbakoak ikatza, eta tresneria!**

**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

# Etkez etxeko bi erronda, egun berean

**K**alezarko jaietan haur, gazte zein heldu, dezentzako San Joanen izaera inklusiboan sakontzen lagundu duen ekitaldia dugu lerrootakoa, oilasko biltzaile txikiena.

Garai bateko biltzaile helduei lekukoa hartu diete azken hamarkada luzean. 2003. urte inguruan hasi ziren ospatzen, urtebete lehenagotik eguneko jai giroa suspertu eta familia giroko ekitaldien aldeko apustua egin zuen guraso taldearen eskutik. “Eskatzen genuen bakarra umeak beti arduradun batekin agertzea zen. Ibarrolara igotzen ginen furgoneta”, eta han abiatzen zuten gero Kalezar erdigunera alde-rako itzulia. Etxe askotan, bero



Oilasko biltzaile gaztetxoak eta gurasoak, Ibarrola Txikin.

## EKAINAREN 23AN

**“Goizeko 10:00etan  
abiatuko dira oilasko  
biltzaile gazteak”**

zen egunetan, eskuzabal, partaideen egarria asetzeko prest

izaten ziren. Itzulera amaieran, bazkaltzeko bildu ohi dira. “100 lagunetik gora elkartu izan gara”, Kalezar plazan.

## Oilasko biltzaileak, San Joan bezperan

Gaurdaino bizirik segi du ohi-tura honek. Kalezar dugu in-

guruotan haur eta gurasoekin antolatzen duen oilasko biltzaileen irteera bakarra. 2019ko edizioa San Joan bezpera egunez ospatuko da. Ohi bezala, 10:00etan abiatuko da irteera eta gero, 14:30ean bazkaria. Antolakuntzaren oharra go-goan izan; otordurako txartelak Kaffa kafetegian eskura ditzakezue ekainaren 20ra arte.

## Eskea gero

Bazkaria hasi berritan abiatuko dute San Joan bezperako eskea. Egun berean kokatu dituzte aurten bi kalejirak. Kalezar-ko etxe eta baserrietan egingo duten errondan zehar hainbat geldialdi egingo dituzte goizaldera arte bertsolari eta trikitilarien laguntzaz, tartean, gaueko 22:00etan San Joan sua piztean.

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05

Ondo pasa  
San joanetan!!!

Fatxaden estaldurak  
Estalkien berriztatzeak  
Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

# Ekitaldiz beteriko lau egun

## Ekainak 21, ostirala

- 16:30 Buruhandiak.
- 17:30 Herriko dantzariak.
- Ondoren, auzotarren arteko jokoak.
- 23:30 Kontzertuak: Pelax eta Floxbin.
- Ondoren: Iratzar taldearekin dantzaldia.

## Ekainak 22, larunbata:

### Umeen Eguna

- 10:30 XV. Ume Krosa.
- 11:30 Jolasak.
- 16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).
- 16:30 Tailerrak.
- 18:00 Txokolatada.
- Ondoren: buruhandiak.
- 19:00 Dj Gude.
- 00:00 Dj Seymar eta X2r.

## Ekainak 23, igandea:

### Oilasko Biltzaileen Eguna

- 10:00 Oilasko-biltzaile



Ekainaren 21ean hasiko dira festak Kalezarren.

txikien irteera.

- 14:00 Oilasko-biltzaileen bazkaria (tiketak Kaffa kafetegian eros daitezke ekainaren 12tik 20ra bitartean) eta ondorenak.
- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 22:00 San Juan sua.
- Ondoren, eskearen jarraipena.

## Ekainak 24, astelehena:

### San Joan Eguna

- 11:00 Meza nagusia.
  - Ondoren: toka.
  - 13:00 "Gorritiren Showa".
  - 16:30 Buruhandiak.
  - 18:30 Soka dantza.
  - Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizarren eskutik.
- Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



## Oilasko biltzaileen bazkaritarako txartelak salgai

Ekainaren 21etik 24ra ospatuko diren Kalezarko festen baitan, Oilasko Biltzaileen Eguna ospatuko dute San Joan bezperan, hilaren 23an. Goizeko oilasko biltzaile txikien irteera, bazkari batekin borobilduko dute eguerdian.

## Ekainaren 12tik 20ra

### bitartean, Kaffan eskuragarri

Adi, bazkarirako txartelak aurrez eskuratu beharko dira Kaffa kafetegian, Kalezarko Jai Batzordetik iragarri dutenez. Ekainaren 12tik 20ra bitartean egongo dira bertan salgai.



**ANORGA TXIBI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak · ispiluak
- barandak · kristal mota guztiak...

**943 37 17 33- 610 45 93 45**

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

*Ondo pasa San Joanetan!*

**ANDER ARANZAZISTROKI**

industria garbiketarako sistema eta produktuak

**667 680 236**

Ondo  
pasa  
San  
Joanak!

Betiko Sagardoa



**SAIZAR**

Sagardoa • Sidra Natural



SAGARDOTEGIKO ERRESERBAK  
943 373 995

**BODEGA**

☉ Kale-zahar auzoa, 39  
20.170 USURBIL  
☎ +34 943 36 45 97  
✉ sidreria@sidrassaizar.com

Formatu gortasuna

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)







Eskola txikien jaeko argazki gehiago web orrialdean topatuko dituzue, [noaua.eus/galeriak/](http://noaua.eus/galeriak/) estekan.

## “Posible izan da, denok elkarlanean aritu garelako”

**E**skolek eta herriek bat eginda joan behar dute, eskola txiki eta herri txikiei bizirik eutsi nahi bazaie behintzat. Horretarako, elkarlana funtsezkoa da. Sarritan entzun zen mezua igandean Aginagan ospatu zen Gipuzkoako Eskola Txikien jaietan. Besteak beste, eguna abiarazi zuen harrera ekitaldian.

Eskola Txikiek hezkuntza mailan egiten duten lana eta herri txikiei ematen dieten bitzita, bizipoza goraiatu zituzten behin baino gehiagotan ekitaldian parte hartu zuten erakunde ezberdinetako ordezkariak.

Usurbilgo txistulariek eta Aginagako Eskolako guraso eta irakasleek eginiko aurrekuak abiarazi zuen, Agurne Alkorta eta Alberto Pikabeak aurkezturiko ekitaldia. Protagonista nagusiak Aginagako Eskolako ikasleak izan ziren. Kantuan eta dantzan hasi zuten eskola txikien jaiak, horretarako “ateak zabalik” zituztela oroitaraziz.

Iaz oikiarren eskutik jaso eta urtebetez Aginagako Eskolan izan duten lekukoa Aizarnakoen esku utzi zuten, haiekin batera egin zuten dantza saio baten baitan. Aizarnako Eskola izango da 2020ko jaialdia antolatzeaz arduratuko den ikastetxea.

### Leire Salaberria: “Hau posible izan da, denok elkarlanean aritu garelako”

Azken egunotako antolaketa lanen zoramena, baina batez ere ilusioa aipatu zuen Aginagako Eskolako zuzendari Leire Salaberriak. “Ilusio handiz prestatzen ibili gara dena”. Esker hitzak izan zituen bereziki gurasoentzat, “izugarriko lana egin dutelako. Hau ez litzateke posible izango beraiek gabe, bihotz bihotzetik eskolaren partez eskerrik asko”. Eskertza hitzok baliatu zituen Salabe-



Protagonista nagusiak Aginagako Eskolako ikasleak izan ziren.

### LEIRE SALABERRIA

**“Gurasoek apustua egin zuten eskola hau mantentzeko. Auzoko jendea sutsua, potentziaduna da eta horri esker eskola mantendu da. Gaur egungo neska-mutilek eskola dute auzoan”**

riak, “aldarrikatzeko bai eskola eta hezkuntza komunitateak elkarrekin joan behar dugula, bestela eskola txikia ez litzateke bizirik egongo”.

Aginagako Eskola ixtear egon zen unea ekarri zuen gogora. “Gurasoek apustua egin zuten eskola hau mantentzeko. Auzoko jendea sutsua, potentziaduna da eta horri esker eskola mantendu da, gaur egungo neska-mutilek eskola dute auzoan”. Elkarlanaren balioa azpimarratu zuen. “Taldea bikaina dugu, irakasle taldea, gurasoak eta hau dena posible izan da denok elkarlanean aritu garelako”.

### Xabier Arregi: “Zuei esker daude bizirik eskola txikiak”

Funtzioetan den Usurbilgo alkateak jendaurreko azken ekitaldia zuen igandekoa. “Pozik nago hala egokitu delako”, zioen. Tartea baliatu

zuen, “Aginagako eskola komunitateari eta aginagar guztioi nire esker ona adierazteko, egin duzuen lan bikainagatik. Ondo dakit, zer nolako grina, ilusioa, indarra jarri duzuen gaurkoa egun hain ederra izan dadin”.

Festaren eredia goraiatu zuen; apala, neurrikoa, euskarak erabateko presentzia duena, balio handikoa eta elkarlagune lanak egiten dituen. “Gipuzkoako herri txiki guztiok elkartzen gara eta horrek gure artean nolabaiteko harremana eta konplizitatea sortzen du”.

Eskola txikiek batzen dute Gipuzkoa urtean behin ospatzen den jaialdi honek. Eta urtero errepikatu arren, berriz aipatu beharrekotzat jo zuen Usurbilgo alkateak, “ez dela herri txikirik eskolarik gabe. Gora eskola eta herri txikiak, hori gabe ez dago Gipuzkoarik, ez dago gizarte kohesiorik ezta lurralde kohesiorik ere”.

Horregatik goraiatu nahi izan zituen Usurbilgo alkateak, “eskola txikien proiektu komun hau iraunarazteko eta indartzeko lanean ari zareten guztiok. Lan isila eta apala baina zinez balio handikoa egiten duzue. Zuei esker daude bizirik eskola txikiak. Horixe eskatzen dizuet, lan horretan segitzea. Eutsi goiari! Gora Gipuzkoako herri txikiak, gora

eskola txikiak eta gaur bereziki hala egokitzen delako, gora Aginagako eskola txikia!”.

### Cristina Uriarte: “Asko eman duzue eta horregatik zarete hain maitatuak”

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburuak eskola txikiek hezkuntza mailan eta herri giroa bizirik mantentzen egiten duten lana aitortu eta eskertu zuen. “Xarma berezia duzue, oso hurbileko hezkuntza eskaintzen duzue eta bizia ematen diozue auzoari, herriari. Asko eman duzue eta horregatik zarete hain maitatuak”.

Konpromisoa eta elkarlana bereizgarri nagusi dituen hezkuntza komunitate txikia izanagatik, “poztasun handia ematen diozue inguruari” eta horrek “haundi egiten zaituztete”. Eskola txikiei buruz zioen, “zuek zuen aldetik dena jartzen duzue, gu ahalegintzen gara gure esparrutik dagokiguna bultzatzen”.

Hainbat hobekuntza iragarri zituen Gipuzkoako eskola ezberdinetan. Elkarlanaren balioa azpimarratu zuen, etorkizuneko erronkei heltzerakoan.

### Agurne Alkorta: “Eskola osasuntsu dago eta hori dena gurasoei esker da”

Bilboko ikasketak amaitu aurretik, eta gurasoen eskariz heldu zen Aginagako Eskolara musika irakastera, igandeko harrera ekitaldiko aurkezlea. “2-12 urte artean 9-11 haur zeuden, baina halere zenbat maitasun eta ze ondo egoten ginen”. Gurasoen ahalegin eta borroka nabarmendu zituen. “Asko sufritu zen eskolan urte haietan, tinko eutsi zioten eskolari, lan handia egin zuten eta haur gehiago etorri ziren. Gaur egun 41 haur daude eskolan. Eskola osasuntsu dago eta hori dena gurasoei esker da”.



# Eraso transfobo eta lesbofoboa salatu du Udalak

**M**edeak talde transfeministako kide batek maiatzaren 23an Aritzetako gasolindegian izandako eraso sexista eta transfoboa salatu du ohar bidez Usurbilgo Udalak. Erasotuari elkartasun osoa adierazi dio. “Usurbilgo Udalak ozen salatu nahi du eraso, eta transfobiaren eta lesbobiaren aurkako borrokarekiko bere konpromisoa nabarmendu. Zentzu horretan, bat egiten du Medeak-ek kaleratutako agiriarekin”.

## Eraso bikoitza

Medeak taldeak ere talde ki-deetako baten jasan duen eraso larria salatu du. Aritzetako gasolindegian “arrazoi lesbofobo eta transfoboek bultzatuta, eraso fisiko larria jasan zuen gizon baten eskuetan”. Ondoren, gaineratzen dutenez, “justizia patriarkalaren prozesu biktimizatzaile bikoitza ere jasan behar izan zuen; besteak beste, bizitakoa eraso sexual edo gorroto-delitu bezala ez prozesatzearena”. Justizia feminista epaitegietan ez dutela lortuko adierazita, “askatasunaren



Medeak taldeak erasotua izan zen kidearen lekukotza plazaratu du eta [medeak.wordpress.com](http://medeak.wordpress.com) atarian irakur dezakezue osorik.

## ERASOA

**“Arrazoi lesbofobo eta transfoboek bultzatuta, eraso fisiko larria jasan zuen gizon baten eskuetan Aritzetako gasolindegian”**

eta bizitzaren aldeko borroka transfeministarekin jarraituko dugu” berretsi dute.

Sare sozialen bidez egunotan jasotako babes mezuen aurrean, “mila esker benetan egun hauetan jasotzen ari garen babes mezu guztiengatik. Erasoen aurrean elkartasun feministak indartzen gaitu!”.

## “Ni itozten saiatu bitartean, garrasika hasi zitzaidan”

Medeak taldeak erasotua izan zen kidearen lekukotza plazaratu du. Kontakizun honetan zehar aipatzen duenez, “ohitua nago egunerokoan bortizkeria maila oso altu bat jasotzera. Bolleria eta transgeneroa naizenez, indarkeria izugarria bizi izan dut. Argi ikusten dut nire gorputzak berak zer-nolako amorrua, nazka, higuina eta hiltzeko gogoia pizten dien gizon askori. Nolanahi ere, ez nuen sekula halakorik bizi izan, ez nuen sekula halako eraso bortizik, mespretxu sexualik eta bizitza galtzeko beldurrik bizi izan”.

# Igerileku eraberritua zabalik

Janak amaituta, proben fasea igarota, astelehenaz geroztik zabalik eta erabiltzeko moduan da Oiardo Kiroldegiko igerileku eraberritua. Gunea irisgarri bilakatu dute, igerileku txikia handitu eta azpiegiturak berriarekin batera. Uretako ikastaroak ere egunotan bertan hastekoak dira.

## Udako ikastaroak

### Oiardo kiroldegian

Kiroldegiak plazaratu du jada uda parterako ikastaro eskaintzaren gaineko informazioa. Izen ematea zabalik dago:



Uretako ikastaroak ere egunotan bertan hastekoak dira.

- Haurrentzat: igerilekuko ikastaro eskaintza zabala, Kirol Txokoa, eskalada.
- Helduentzat: igeriketa ikastaroak, pilates, GAP + tonifikazioa, Bodyfit, 3. adina, stretching, spinning.

- Haur eta helduentzat: igeriketa entrenamendu pertsonala.

## Gaztelekua, udara begira

Uda parterako eskaintza zabala prestatu du Gaztelekua. Besteak beste hainbat irteera. Txangoetarako Gaztelekuan jaso beharko den “gurasa baimena” orria bete beharko da.

■ Ekainak 20: ETB-ren “Gure Kasa” saiora DBH3koekin.

■ Ekainak 22: udako solstizioaren ospakizuna DBH1-ekoekin.

■ Ekainak 24: Txokoaldeko Txalaparta Txokora irteera DBH1-ekoekin.

■ Ekainak 27: “Beldur Barik” sariko ekintza: Zumaia-Deba txangoa eta afaria.

## Informazio gehiago:

943 371 050

688 713 838

[gaztelekua@usurbil.eus](mailto:gaztelekua@usurbil.eus)

## Urbil, Gipuzkoako Pilota Federazioko babesle berria

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPF) lankidetzeta hitzarmena sinatu du merkataritza-gunearekin. Akordio honi esker, Urbilek Herriarteko Txapelketako lau finalak eta Gipuzkoako Txapelketako emakumezkoen eskuz banakako finalak babestuko ditu.

Horretaz gain, eta euskal pilotari ikusgarritasuna eman asmoz, Urbilek pilota jaialdietara joateko sarrerak banatuko ditu bere bezeroen artean.



Andoni Lertxundi Pilota Federazioko presidentea eta Javier Colorado Urbileko gerenteak hartu zuten parte hitzarmen ekitaldian.

# Udan ere ikastaro ugari eskainiko dituzte TaPunturen egoitzan

Ekainean egun bakarreko ikastaroak eskainiko dituzte. Uztailerako eta abuzturako ordea, iraupen luzeko ikastaro irekiak antolatu dituzte.

## Ekaineko ikastaroak Ikasi aldizkariak eta eskuorriak maketatzen InDesignekin

■ Ekainak 24 astelehena.

## Eman mugimendua irudiei After Effectsekin!

■ Ekainak 25 asteartea.

## Nola egin 'brainstorming' saio eraginkorrak?

■ Ekainak 26 asteazkena.

## Diseinuak egiten ikasi Canva tresnarekin

■ Ekainak 27 osteguna.

## Udako ikastaro irekiak

Udan zehar iraupen luzeagoko ikastaroak antolatu dituzte, "9 eta 15 ordu arteko formazio sakonagoak. Modu honetara ikasketa prozesua praktikoagoa izan daiteke", Tapuntukoek aditzera eman dutenez.

## Bideogintza mugikorrarekin! (14-18 urte)

■ Uztailak 4, 5, 8, 9 eta 10.

Bideo bat osatzeko gidoia egi-



Mugikorrarekin bideoak egiteko ikastaroa eskainiko dute uztailaren hasieran. 14-18 urte arteko gazteei zuzendua dago.

ten ikasteaz gain, mugikorrarekin grabazioa egingo dute. "Jasotako irudiekin eta aplikazioen laguntzaz, bideoa editatu eta emaitza paregabea lortuko dugu".

## Marketin digitaleko plan bat garatzen!

■ Uztailak 16, 18, 23, 25, 30.

Marketin plan baten zatiak ezagutzeaz gain, martxan jartzeko gakoak irakatsiko dituzte ikastaro honetan. "Estrategian oinarrituko gara eta marketin ekintzak jorratuko ditugu".

## Diseinu grafikoan hastapen praktikoa

■ Abuztuak 5, 6, 7, 8 eta 9.

Diseinu grafikoaren hastapenerako ezagutza teorikoez gain,

"Adoberen aplikazio erabilienetan hastapen praktikoa egingo dugu: Photoshop, Illustrator eta InDesign ezagutuz".

## Sare sozialak eta pribatutasuna gure haurrentzat (gurasoak)

■ Abuztuak 12,13 eta 14.

Seme-alabak sare sozialetan eroso aritzen dira, baina ez da gauza bera gertatzen gurasoen kasuan. "Irakasteko ikasi behar delako, etorri eta landu gurekin sare sozialen pribatutasun aukerak, eta heldu lasai etorkizunari".

## Informazio gehiago

info@tapuntu.eus

www.tapuntu.eus/ikastaro-irekiak/

## Aurrematrikula irekita Oinarrizko Lanbide Heziketan

Atallun, Alkartasuna Kooperatibaren alboan kokatua dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak zabalik du ekainaren 14ra arte, 2019-20 ikasturterako aurrematrikulazio epea.

Bi ziklo ditu aukeran, 15-17 urte arteko gazteei zuzendutako hezkuntza eskaintzak. Baina era berean, ziklo baten lanketatik haratago doa Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuaren es-

kaintza. Hemen xehetasunak:

### Zikloak

■ Oinarrizko Lanbide titulua sukaldaritza eta jatetxe arloan.

■ Oinarrizko Lanbide titulua ile-apainketa eta estetika arloan.

### Zikloen antolaketa

■ 1. ikasturtea: 2019 iraila-2020 ekaina. Astelehenetik ostiralera. 08:30-14:30.

■ 2. ikasturtea: 2020 iraila-2021 martxoa. Astelehenetik

ostiralera. 08:30 - 14:30.

Praktikak enpresetan, martxotik maiatzera (260 ordu).

### Bete beharreko baldintzak

■ 15 (salbuespenez), 16, 17 urte bitarteko gaztea izatea.

■ DBH graduatua ez izatea (DBH3 egina edo/eta salbuespenez DBH2 egina).

Informazio gehiago: 943360465

lhi@usurbil.eus

lhusurbil.eus/web/

## Hasiz Hazi beka deialdi berria

Kabiene Elkarlan Gunean urtebeteko egonaldia egiteko beka deialdi berria iragarri du Usurbilgo Udalak. 2019. urtean enpresa proiektu berri bat duen Beterri-Buruntzako udalerriren batean erroldatua dagoen ekintzaileari zuzendua dago deialdia.

Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute "eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari". Horrekin batera, "Beterri-Buruntza ekinean, enpresak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuaz baliatu ahal izango dira".

### Aurkezteko epea: irailak 30

Informazio gehiago, udalerean. Eskabideak aurkezteko epea: irailak 30.

## Lanbide Heziketan aurrematrikulatzeko epea ostiral honetan amaituko da

Lanbide Eskolatik aditzera eman dutenez, aurrematrikulazioa bideratzen ez duenak ezingo du gero hurrengo ikasturterako matrikulatu.

### Beharrezko agiriak:

Aurrematrikulazioa bideratzeko NAN agiria eta espediente akademikoa aurkeztu beharko dira.

### Eskaintza:

Erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen ditu Usurbilgo Lanbide Eskolak.

### Aurrematrikulazioa osatzeko epea:

Ekainak 14 ostirala.

### Informazio gehiago:

lhusurbil.eus

943 364 600

eskola@lhusurbil.eus

# Uxue Trail, Usurbilgo Lehen Mendi Lasterketa solidarioa uztailaren 6an

**M**endi Lasterketa ospatuko da estreinako Usurbilen. Uztailaren 6an Andatza inguruak zeharkatuko dituen proba herrikoari Uxue Trail izena jarri dio antolakuntzak, Phelan-McDermid Sindromea duen Uxue Martin gaztetxoaren aldeko ekimen solidarioa izango baita.

Phelan-McDermid Sindromea ezagutarazi eta gizartea gaixotasun honekiko sentsibilizatzea da lasterketaren helburu nagusia. “Phelan-McDermid sindromea, edo 22q13 kromosomaren gabetzea, gure herriko Uxue txikiak duen gaixotasun arraroa ezagutarazteko antolatu dugu Andatza mendian zehar ibiliko den mendi lasterketa hau”, berri eman du antolakuntzak. Gaixotasun honi buruzko informazio gehiago, hemen duzue: 22q13.org.es

Ohartarazi dutenez ordea, “sindromearen ikerketarako ere ahalik eta laguntza gehiena eman nahiko genuke”.



Ezkabako ihesaldiko lehen etapa osatu zuten aurreko igandean. Andatza M.M.K. taldeak antolatu zuen irteera.

## ANTOLATZAILEAK

**“Phelan-McDermid sindromearen ikerketarako ahalik eta laguntza gehiena eman nahiko genuke”**

**Bi proba aukeran, bat luzea eta beste bat motza**

Laguntzeko bide ezberdinak izango ditugu; batetik, Uxue Trail proban izena eman eta lasterketan parte hartzea uz-

tailaren 6an. Bi distantzietako proba, proba motza edo luzea egin ahaliko da.

## Dorsal solidarioa

Lasterka aritu nahi eta ezin duenak, badu elkartzuna adierazteko beste modu bat ere; dorsal solidarioa eskuratzeko. Alegia, nahiz eta lasterketan ez parte hartu, aipatu sindromearen ikerketara bideratuko den diru ekarpena egin daiteke. Guztia, kronoak.com atariaren bidez.

## Pirinioetara mendi irteera

Andatza M.K.K.-k Pirinioetako Estos bailara bisitatuko du irailaren 21eko asteburuan. Bost hirumilako egiteko asmoa dute. Irteeran izena emateko epea zabalik da. Informazio gehiago: andatza.com

## Ekainaren 18an, Futbol Eskolaren aurkezpena

2019-20 denboraldirako prestaketa lanak hasi ditu Usurbil F.T.-k. Sasoi berri-rako Futbol Eskola aurkezteko hitzordua finkatu du datorren astearterako (ekainak 18), 18:00etan Potxoenean. “Bertan urteko funtzionamendua eta nondik norakoak azalduko ditugu”.

## Usurbil K.E.-ren denboraldi amaierako afarirako txartelak salgai

Une gozo bat baino gehiago bizi izan dizkien 2018-19 denboraldia festa giroan agurtzera doa Usurbil Kirol Elkarteak, ekainaren 22rako (larunbata) 21:00etan frontoian antolatu duten afariarekin. “Animatu denboraldi honi denok elkarrekin jai giroan amaiera ematera!”, luzatu dute gonbita Usurbil Kirol Elkartetik.

Hemen, afarian dastatu ahaliko den menua: enbutidoak, txanpiak saltsan, lumagorri oilaskoa, saiheskia letxugarekin. Ijito-besoa izozkiarekin. Kafea. Edariak, txotx sagardoa, eta bestelako edariak. Guztia, 20 euroren truke, 12 eurotan 14 urtera arteko gazteek.

## Bordatxon eskuragarri

Txartelak aurrez eskuratu beharko dira, ekainaren 20a baino lehen, Bordatxon.

## Uxue Trail, xehetasunak

- Eguna: uztailak 6 larunbata.
- Irteera: Usurbilgo frontoitik.
- Abiatzeko hitzordua: 9:00etan
- Bi proba aukeran:
  - Luzea: 20 km. Prezioa: 20 euro.
  - Motza: 11 km. Prezioa: 15 euro.
- Dorsal solidarioa. Donazioa.
- Izen ematea: kronoak.com atarian, uztailaren 5eko gaueko 22:00ak arte.
- Oharra: opariaren zozketa lasterketa amaieran, parte-hartzaile guztien artean.

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia es-trenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m2. 3 logela, egongela, sukalde

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatu berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

## Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabilza.

Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Munalurran pisua alokatzen da, igogailuarekin. 688618485

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatzen lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbia. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa ne-goziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi

edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m2-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatz 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Usurbilgo Alkartasuna Baserri-



## Zorionak Aritz!

Ekainaren 6an gure etxeko txikiak 5 urte bete zituen. Muxu potolo bat etxeko guztion partez.



## Zorionak Amets!

Gure etxeko xomorrito txikiak 2 urte betetzen ditu ekainaren 12an. Ze ondo ospatuko dugun zure eguna!!! Behiaren 2 muxu handi famili guztiaren partez.

**OHARRA:** 2019ko ekainaren 21ean aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: ekainaren 17a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

tarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatua bazaude, deitu 943 361 114 edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorpuzaldialdi@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiari, info@restaurantearatz.com

#### LANPOSTUAK

##### Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten.

Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo

arratsaldez. Urtarrietik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin.

Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

#### BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreo - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noau! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 13** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 14** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 15** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 16** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Astelehena 17** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteartea 18** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteazkena 19** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

## Ekainak 13 - Ekainak 23

**Osteguna 20** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 21** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 22** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 23** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda ekaina

## 14 ostirala

■ **Ikastola Egunaren atarian: antzerkia eta txokolate jana.** 17:00etan "Hondartzaren amaiera" antzezlan Olanoeneko anfiteatroan. Ondoren, txokolate jana Askatasuna plazan. Antolatzaileak: Udarregi Ikastola eta Hitz Aho guraso elkarte.

## 15 larunbata

■ **Maule-Urdiñarbeko Euskal Herri Kantuz** egunera irteera. 8:30ean abiatuko dira Oiardotik.  
 ■ **Zumeta Arte Estudioa irteera.** Abiatzeko hitzordua: 10:00etan, Mikel Laboa plazan. Izenematea ekainaren 13an itxiko da.  
 ■ **Ikastola Eguna.** Ikus orrialdea.

## 16 igandea

■ **Urdiñarbeko maskarada.** Egun osoko ekitaldia. Ikus orrialdea.

## Datorren asteartean, 'Irriak plazan' ikuskizuna frontoian

**I**rrien Lagunak taldeak "Irriak plazan" ikuskizuna eskainiko du datorren asteartean, hilak 18, Usurbilgo frontoian. Haurrentzako emanaldi honetan, Tiritatxo eta Martinbertso izango dira protagonistak. Ikusleak era askotako abenturak biziko ditu eta parte hartzea ezinbestekoa izango da.

### Irrien Lagunak, "Irriak plazan"

■ Ekainak 18 asteartea.  
 ■ 17:30ean frontoian.  
 ■ Sinopsia: "Herriko plazetan beti dago sorpresaren bat irriak eragiten dituen. Zer aurkituko ote dute Tiritatxok eta



17:30ean hasiko da pailazoan emanaldia.

Martinbertsok Usurbilgo plazan? Euskara eta euskal ondarea landuko dituen ikuskizun parte hartzailea".

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

## Zumeta Arte Estudioa bisitatzeko aukera

Mintzalaguneko kideek irteera berri bat antolatu dute. Ikasturteari amaiera emateko Zumeta Arte Estudioa joango dira bisitan. Larunbat honetan, goizeko 10:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Irteeran parte hartu nahi duenak au-

rretik eman behar du izena. Ekainaren 13a baino lehen, euskaltegira deituz edo idatziz: 607 609 379 edo usurbil@aekeus. Doakoa izango da bisita baina plazak mugatuak izango dira.

Antolatzaileak: Etumeta AEK euskaltegiak, Udala eta NOAUA! K.E.

### Datozenak

#### Santixabel jaietako zikiro janerako txartelak salgai

Jaietako zikiro janerako txartelak ekainaren 7an jarri zituzten salgai. Txartelak Aitzagan, Txiribogan eta Bordatxon eskuratu ahalko dituzue 25 eurotan, 15 eurotan langabetu eta ikasleek. Antolakuntzak ohartarazi duenez, "txartelak ezingo dira itzuli ekainaren 28tik aurrera". Ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko diren Usurbilgo jaietako zikiro jana, hilaren 29an ospatuko da, larunbatez, 14:00etan Askatasuna plazan.

#### Kalezarko oilasko biltzaileen bazkaritarako txartelak

Ekainaren 21etik 24ra ospatuko diren Kalezarko festen baitan, Oilasko Biltzaileen Eguna ospatuko dute San Joan bezperan, hilaren 23an. Goizeko oilasko biltzaile txikien irteera, bazkari batekin borobilduko dute eguerdian.

#### Kaffan eskuragarri

Adi, txartelak aurrez eskuratu behar ko dira Kaffa kafetegian, Kalezarko Jai Batzordetik iragarri dutenez; ekainaren 12tik 20ra bitartean.

**txirriStra**  
**TABERNA**

-Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ANTXETA**  
 taberna-jatetxea

eguneko menuak  
 ogitartekoak  
 plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**Patriña**  
 jatetxea

• bazkariak EGUNERO  
 • afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

# Edertu zaitez!

**INDIBA**  
DEEP BEAUTY  
PROFIC BODY CARE SYSTEM

**DESKONTU BEREZIAK**

· ZELULEN BIRSORTZEA · LIPOLISISA · MODELAKETA · ERREAFIRMAZIOA  
· AZALAREN TONIFIKAZIOA · OXIGENAZIOA · HIDRATAZIOA · LIFTING

✓ ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA  
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILLETAREN HOBETUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

[www.enarestetika.com](http://www.enarestetika.com)

**Enar**  
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK: PRESOTERAPIA · TERMOLINEA · ELEKTROESTETIKA · PRESOTERAPIA

Munalurra 2, USURBIL 943 57 16 80



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

Artzabal



**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

**UDABERRI BEGIRA  
JARRI ZURE AZALA PREST**

- AURPEGI GARBIKETA
- GORPUTZ GARBIKETA
- PRESOTERAPIA
- PEDIKURA · MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO · DEPILAZIOAK

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial  
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



**Elexpe**  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

**TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA  
Eskola adinerako berezia**

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:  
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila  
desilatuz eta Bisabobolez indartua

**GOLDWELL  
ELUMEN**

ileapaindegia  
**mistoa**



Zorrien  
aurreko lozio  
**ORGANIKOA**  
**RUNDA**


Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

IRRIEN  LAGUNAK



# IRRIAK PLAZAN!

Tiritatxo eta Martinbertso



Ekainak 18, asteartea  
17:30ean frontoian

NOGUA

